

ttipi-ttapa

1993.eko Maiatzak 6


































































































109. zenbakia

dohain banatzen da

ARBITROAK: Futbolaren ardi beltzak



ZURE EROSOTASUNAREN ALDE DEKLARATZEN GARA

 BARANAIN Plaza de los Castaños, 4	 BERRIOZAR Iruñalde, 8	 BURLADA Mayor, 37 bis	 CHANTREA Viravalles, 17-19	 CIZUR Urbanización 8-3, 25	 ITURRALDE Y SUIT Iturralde y suit, s/n	 ITURRAMA Iturrama, 12	 MILAGROSA Rio Irañ, 10	 NOAIN Real, 41	 PAMPLONA Plaza de los Fueros, 1	 ROCHAPEA Artico, 11
 ROTONDA Avda. Barañain, 17	 SAN JORGE Prolongación M ^o Oliva, 2	 VILLAVA Ricardo Bel, 4	 ABARZUA Carretera Estella, s/n	 ABLITAS Nueva del Rio, 24	 ALLO Plaza de los Fueros, 1	 ANDOSILLA Ramón y Cajal, s/n	 ANORBE Plaza, s/n	 ARANAZ Idirtea, s/n	 ARGUEDAS Plaza General Clemente	 ARIVE Santa Maria,
 ARRONIZ Primicia, 1	 AZAGRA Avda. la Paz, s/n	 BARASOAIN Doctor Navarro, 6	 BERA Bidassoa, 10	 BERBINZANA Barrio Alto, s/n	 BETELU Carretera San Silvestre	 BUNUEL Movimiento Nacional	 CABANILLAS General Sanjurjo, 17	 CADREITA General Franco, s/n	 CAPARROSO General Franco, 4	 CARCAR Ana Magari Fontcuberte
 CARCASTILLO Carretera Aibar, s/n	 CASCANTE P. Obispo Soldevilla, 9	 CASEDA San Blas, s/n	 CINTRUENIGO General Mola, 7	 CIRAUQUI Monte, s/n	 CORELLA San José, 20	 CORTES Plaza Duquesa de Miranda	 DICASTILLO Plaza, s/n	 ELIZONDO Jaime Urriñe, s/n	 ERRO Carretera Francia	 ESTELLA San Andres,
 ETXALAR Ansolokueta, s/n	 EULATE Carretera Estella, s/n	 FALCES General Franco, 3	 FITERO Mayor, 55	 FONTELLAS Avda. Tudela, 9	 FUNES Héroes del Alcazar, 8	 FUSTIÑANA Plaza General Mola, 2	 GENEVILLA Mayor, s/n	 HUARTE ARAQUI Plaza San Juan, s/n	 IRURZUN Carretera Estella, 17	 JAURRIETA La Fuente, 2
 LARRAGA Cofradia, s/n	 LARRAINZAR San Pedro, s/n	 LECUMBERRI Carretera San Sebastián	 LERIN Mayor, s/n	 LESACA Bitirio, s/n	 LOS ARCOS Plaza de la Fruta, 13	 LUMBIER Mayor, 82	 MANERU Plaza	 MARCILLA Blanca de Navarra, 2	 MELIDA Plaza de los Fueros, s/n	 MENDAVIA Augusto Echeverr
 MENDIGORRIA Bernardino Ayala, 2	 MILAGRO Voluntarios Navarra, 16	 MIRANDA DE ARGA Garcia, s/n	 MONTEAGUDO Carretera Tarazona	 MURCHANTE Carretera Tudela	 MURIETA Carretera Estella, s/n	 MURILLO EL FRUTO Carretera Aibar-Caparroso	 OCHAGAVIA Iribarren, 32	 OLAGÜE Carretera s/n	 OLITE San Francisco, 21	 OTEIZA DE LA S Carretera Estella, s/n
 PERALTA Irurzun, s/n	 PITILLAS San José, s/n	 PUENTE LA REINA Plaza de los Fueros	 RIBAFORADA José Antonio, 18	 S. MARTIN DE UNX S. Muruzabal	 SAN ADRIAN Estella, 67	 SANGUESA Plaza de los Fueros, s/n	 SANTACARA Ntra. Sra. de Ujué	 SANTESTEBAN Parroquia, s/n	 SARTAGUDA Eras, 3	 SESMA Plaza de los Fueros
 SUMBILLA Leku-Eder, 31	 TAFALLA Plaza de los Fueros, 2	 TUDELA Calvo Sotelo, 1	 TUDELA Mauleón	 VALTIERRA Carretera Zaragoza, s/n	 VIANA De la Solana, s/n	 VILLAFRANCA General Mola	 VILLATUERTA San Ginés, 31, bajo	 ZUDAIRE Mayor, s/n		

**Zure errenta deklarazioa eginen dizugu
Caja Rural de Navarra-ren
97 sukurtsaletatik edozeinetan**

Zure Errenta Deklarazioa egiterako orduan,
zatoz Caja Rural de Navarra-ra.
97 sukurtsal ditugu zure esku.
Zure deklarazioa modu erosoan
eta denborarik galdu gabe eginen dizugu.

Caja Rural de Navarra-n gainera, posible
izanen duzu dagokizun ordainketa edo
itzulketa helbideratzea inolako arazorik gabe.
Gure erkaundearen bezero izan ala ez,
hurbildu zaitetz Caja Rural de Navarra-ra.
Deklaratutako abantailak ditugu.



non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarena, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 28** **ERREPORTAIA:** «Zelulitisa: Emakumeen burukomina», ez dago tratamendu majikorik soberan dauden kiloak kentzeko.
Karmele Tolosa
-
- 30** **ELKARRIZKETA:** Mikel Iturrarte, Leitzako arbitroa: «Futbolaren ardi beltzak gara»
ELI eta IDOIA
-
- 32** **KIROLAK:** Irurtzun, Ultzama eta Basaburua-Baztan garaile Jolas Kiroletako herri kirol txapelketan
-
- 34** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernuia....

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450805

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarain515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Maiatzaren 8-9an**, Bera, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Maiatzaren 15-16an**, Arantza, Ituren eta J. Iturralde (Elizondo).

W Deialdiak

► **BERA**, maiatzaren 5ean arratsaldeko 8etan, Lainope ingurugiro taldearen bilera Gure Txokoan.

W Deialdiak

► **IGANTZI**, maiatzaren 7an, Euskara batzordearen bilera.

► **LESAKA**, maiatzaren 7an, Euskara batzordearen bilera.

► **BERA**, maiatzaren 11an, Euskara batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, maiatzaren 13an, Euskara batzordearen bilera.

► **ETXALAR**, maiatzaren 19an, Euskara batzordearen bilera.

► **IGANTZI**, maiatzaren 20an, Euskara Mankomunitatearen aholkularitza batzordea.

W Gaupasak**► SARA****HERRI URRATS GAUA**


Maiatzaren 8an, plazan *Lin Ton Taun* eta *NEGU GORRIAK* taldeekin.

Biharamonean, Herri Urrats Senperen.

► ERRATZU

Maiatzaren 8an, frontoian *Alkolerri*, *EH Sukarra* eta *Julio Kage-ta* taldeekin.

Antolatzaile: Xorroxin Irratia.

W Bota bertsoa**Luis OLAETXEA**

Gaia: Migeltxo Saralegi
Neurria: Zortziko Haundia

Mieltxo Saralegik egin du gauza sinistu ezina hogeitabortz urte dituhori da bere adina hirurehunta hogei kilokua bizkarrera du egina haundiagoak jasoko ditusegitzen badu aintzina.

Bigarren bertsun sartutzen ditut Miel ta lñaki biak Leitzaiko herrian sortu dirade indartsu izugarriak bihotzetikan maitatu behar lituzke Euskal Herriak mundu guzian zabal ditezen gizon hauen notiziak.

AGENDA

Hitzaldiak

► ARESO

Maiatzaren 7an arratsaldeko 3etan, Erasonean.

Gaia: Gaztaroa.

Erakusketak

► LEITZA

Maiatzaren 16an, Kultur Asteko egitarauaren barnean eskulangileen erakusketa.

Kultur astea, hilaren 14tik 23ra burutuko da. Xehetasunak 20. orrialdean.

Bertsoak

► ELIZONDO

Maiatzaren 8an, gaueko 9,30etan pilotalekuan. **Bertsolariak:** Peñagarikano, M. Arozena, J. Sarasua, Egaña, X. Lizaso eta Euzkitze. **Gai-Jartzaile:** Iñaki Murua. **Antolatzaile:** Amaiurko kirol taldea.


Gastronomia

LEGATZA SALTSAN

Osagaiak 4 lagunendako:

Legatz kilo bat, kilo laurden almeja, oliba olio, 3 baratxuri eta perrexila.

Kaxula batean oliotan jarri baratxuriak gorritu arte. Legatzaren xerrak gazitu ondorean jarri sutan eta baita ere almejak. Almejak



Inazio GOIKOETXEAK emana
Pake toki Elkarte - ARESO

irekitzeko su fuertea behar da.

Kaxuela mantxo-mantxo eragin gelatina atera arte. Gutxi balitz ur tanta bat bota daiteke.

Hamabost edo hogeitunutuz sutan eduki, su bajubajuan eta denbora guztian zehar kaxuela eraginez. Ateratzeko momentuan perrexila bota gainetik.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 4.750 pza. **Zerrigizena** (95-100): 130 pza/kilo **Zerramak:** 60-80 pza./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pza/kg. Kanal Extra.....550
1.koa.....525
2.koa.....510

Urruxak: Pza/Kg. Kanal Extra.....560
1.koa.....530
2.koa.....510
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:


Behi nabar gizena: 360 Pza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pza /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 16.000 eta idixkoak 24.000 Pza.
Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 38.000 Pza.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIAK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

W 11 galdera ilabur

W Musika



► Jose Julian Salaberria

Goizuetako pilotaria eta aurrezki kutxako langilea

- Dirua ingresatu ala kreditoak eman? Dirua ingresatu.
- Aurrezki kutxa ala pilota? Pilota.
- Retegi ala Mario Conde? Ez bat eta ez beste.
- Apostuak, bai ala ez? Ez.
- Entrenamendua ala lagunartea? Biak berdinak dira.
- Neska bati begiratzerakoan, aurretik ala atzetik? Aurretik.
- Ezkondu ala "arrimatu"? Arrimatu.
- Emakumeak, galtzekin ala gonarekin? Galtzekin.
- Zer botatzen duk faltan Goizuetan? Gimnasio bat.
- "Kajero automatikoa" ala jendearekin harreman zuzena? Jendearekin harreman zuzena.
- Bertsoa, trikitixa ala rocka? Bertsoa eta trikitixa.

► Cesaria Evora Cabo Verde

Atlantikoerdi aldean ahantziak dauden irla batzuetako herri-minak abesten dituen abeslaria da Cesaria Evora. Cabo Verde irlan folleto turistikoetan agertzen ez diren lekuak dira; Senegaleko kostatik 500 kilometrotara. Han sortu eta bizi da Cesaria Evora bere anai itsuarekin, bere seme alaba eta bere bilobekin Mindeloko etxe txar batean. Bere aitaren lehengusu batek asmatutako olerkiak Mindeloko portuko taberna zaharretan kantatzen zuen beti



Cesaria Evorak, fado gisako doinuak abesten ditu oin hutsik

azken orduetan eta trago edo txanpon guttiren truke. Ez omen da inor herrimin abestiak hobe kantatzen duenik, ez Cabo Verden ez Portugalen.

Miloi inguru biztanle zituzten irla hauetatik erdiak baino ge-

hiagok alde egi-na dute miseria-tik bizibide hoberruntz, Estatu Batuak, Portugal, Frantzia, etab... Cesaria, emakume organizazio baten gonbidapenari esker Lisboa-ra joan eta ezaguterazi zuten disko kolektibo bat zela medio.

Ondoren Parisera gonbidatu eta bertze bi diska grabatu zituen: "Mar Azul" eta "Miss perfumado". Azken diska honen 30.000 kopia saldu dira oraingoz Frantzian. Eta Espainian ere aurki daitezke diska hauek. Bourgesko festibala udaberrian; Olympian ekainaren 12 eta 13an. Niza eta Montreauxko jazz festibalean udan egonenda oin hutsik abesten; maitasun eta bakardadeari buruzko fado gisako doinuak, morua izenekoak.

MARIANO

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

CLAAS S. Semper



SAME

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



Intsumisoen aurkako epaiketak ugaritu dira azkenaldi honetan. Elizondoko Aitor Ruiz de Larrinaga eta Lesakako Andoni Zamorano izan dira azkenak. Eskualdeko antimilitarista eta intsumiso taldeak zenbait mobilizazio ere prestatu ditu



elkarr

«Elkarri» elkarrizketa eta akordioaren aldeko giza mugimendua indartuz doa pixkanaka gure zonaldean. Apirilaren 23an, Bortziriako taldearen aurkezpen ofiziala egin zen eta bertze zenbait herrietan ere lanean hasiak dira.

Ia 4 milioi zonaldeko zenbait etxe moldatzeko

Nafarroako gobernuak eman du dirulaguntza



Nafarroako Gobernuak 3.800.000 pezeta zuzendu ditu interes artistiko-historikoa duten Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortziriako zenbait etxe molda daitezzen.

Zehazki errateko, **Amaiurren** 520.216 pezeta eman zaizkio Eusebio Mujika Jauregiri; **Beran** 385.425 pezeta Rosa Gallanori eta 219.000 pezeta

Juan Joxe Irazokiri; **Elgorriagan**, 252.925 pezeta Carmen Bera Arretxeari eta 398.765 pezeta Martin Zabalo Etxegaraiari; **Iruritan** 321.075 pezeta Angel Gamio Bikondoari; **Iturenen** 200.541 pezeta Juan Ariztegi Azpirozeri eta **Legasan** 363.000 pezeta Jose Antonio Erasunerari eta 699.000 Pedro Irigoienari.

INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



MAITASUNEZ

Astintzen gaituen haizeak bakarrik
gure habiaz daki
haizeak eta guk biok, maitea
besteek ez dute inola ulertzen
gu beste motatako hegaziak garela
orok dakite elkarrekin hegaz egiten dugula
baina guk, ez beste,
ezagutzen dugu gure oihaneko txorrik goxoena
Atzo triste ikusi zintudan
goazen... alaitu zure begi distiratsu horiek!
Gatozen hegaz egitera!
Astintzen gaituen haizeak bakarrik
gure habiaz daki
Haizeak eta guk biok, maitea.



Jose Javier Elizalde
Urtasun
Ilarregi (Ultzama)

ABISUA

"Irakurleak mintzo" saila mota guzietako ideientzat zabalik dago. Eraberean, ideia guziak errespetagarriak iruditzen zaizkigunez, zuen idatziak izen-abizenez eta NAN zenbakiaz sinatzea eskatzen dizuegu, mesedez, gaizki ulertuak gerta ez daitezten. Milesker.

ttipi-ttapa

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Masaia eta bizkortze ariketak

Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzineran
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzineran

Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA



MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - Tfnoa: 63 02 40
BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

Udalak Lizuniagako aduana berreskuratu nahi du

Turismoarekin zerikusia duten zerbitzuak eskeintzeko erabili nahi du aurrerantzean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Urtarrilaren laz geroztik mugak ideki direla eta, Lizuniagako aduana erabilera zehatzik gabe aurkitzen da momentu hauetan. Hori ikusirik, azken udalbatzarrean aduanaren etxola eta bere orubea berreskuratzeko akordioa onartu zen ahobatez.

Turismoaren inguruko zerbitzutarako Lizuniagan aduana eraikitze-ko ia 600 m² lur debalde uztea onartu zuen Berako Udalak 1977an, noizbait aduana bezala erabilia izatetik utziko balitz, berriro herriri itzultzeko baldintzarekin. Horrela bada, aduanaren etxola berreskuratu-takoan, etxola horretan turismoarekin zerikusia duten zerbitzuen promoziorako erabili nahi du Udalbatzak.

'Nafarroako Marketing Clubak' Nafarroako enpresarik aitzindarienen artean aurten banatutako sarien artean «kalitatearen saria» Berako Conservas Martikorentzat izan zen. Argazkian Pello Martikorena, Conservas Martikoren nagusia.



«Kalitatearen saria» Martikorentzat


'Conservas Martiko'-ren produkzioa hasieran printzipalki ahatekian oinarritua bazegoen ere, azken aldi hontan izoki kontserbak ere komertzializatzen ditu. Urte honetarako negozio bolumena

mila milioi pezetatara haunditzea espero du, eta hortarako, orain daukan merkatua sendotzetik hasiko da. Gainera, bertze enpresa batzurekin bilduta European merkatu berriak bilatzeari ekinen dio.

ttipi-flash

- Garzezuria** eta **Amurusbaita** etxeak historikoki eta artistikoki interesgarriak direla eta, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak luzatu dizkie moldatzen laguntzeko; lehenari (Rosa Gallano) 385.425 pzta. eta bigarrenari (Juan J. Irazoki) 219.000 pzta.
- Gelosen** pintura eta eskultura lanak ikustera 1.300 pertsona inguru pasatu omen dira Kultur Etxetik antolatzaileek diotenez. Kopururik haundiena ikasleek osatu dute eta segidan mugaz bi aldetako jendeak.
- 'Lainope'** Ingurugiro Taldeak naturaren gaia-ekin interesaturik dauden guzietan dei egiten die maiatzaren 5ean Gure Txokoa 8etan egingen den bilerara.

BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN

ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

TXOKOA OSTATUA

- X Eguneko menua
- X Asteburutan, kaxuelak eta karta
- X Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- X Pintxoan espezialduak
- X Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LESAKA

Sanferminetako kartel eta azal lehiaketa martxan

Datorren astelehena baino lehenago aurkeztu behar dira lanak Herriko Etxean

AITOR AROZENA

Udalak, aurtengo Sanferminetako programaren azaletako eta bestak iragarriko duen kartel lehiaketarako deia egin du.

Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkez ditzake, kartulina edo paper lodian norberak nahi duen teknika erabiliz. Azalen neurriak, 25x20zm. izanen dira osotara, 2'5 zm.tako ertza margotuz inguruan eta irudia barrenean. Kartelak berriz, 50x40 zm. izanen dute osotara, 1'5 zm.tako ertza utziz. Derrigorrez, «Lesaka, 1993ko Sanferminak» agertu behar da.

Partehartzaileak Lesakan jaiok edota erroldatuak beharko dute izan eta lanak —originalak eta argitaratu gabeak— datorren astelehena (hilaren 10a) baino lehen egon beharko dute Herriko Etxean.



Bordaxoko Josetxo Zozaiari egokitu zaio ikastolaren zozketaren saria: asteburu batez Argiñanoren hotelean.



Joxe Jabier Taberna, 23 urtetako pilotariak berriki eman du profesionaletarako pausua «Asegarce» enpresaren eskutik

Sariak Azaletako lehen saria 35.000 pztatakoa izanenda eta bigarrena 25.000tako.

Lehen saria aintzineko azalean joanen da eta bigarrena gibelean. Kartelak ere 35.000 pezetako izanen da eta bigarrena 15.000koa, lehena bakarrik argitaratuz.

W ttipi-flash

- CAN-ek** bi bidai antolatu ditu. Hilaren 12an Torrelavegako feriara, Cabárcenoko parkea eta Santillana de Mar bisitatuz, eta 22an Burdeoseko Nazioarteko feriara. Bietarako lehenbaitlehen eman behar da izena.
- DYA** elkarteak antolatu ikastaroa burutzen ari da Osasun Zentroan. Hilaren 17a bitarte, sokorismoaz arituko dira astelehenetik ortziralerara, arratseko 8etatik 10etara.
- Maiatzaren 1a** ospatuz langileen mahaiingurua izan zen Kattun, LAB, ESK eta GU sindikatuetako ordezkariekin. Ondoren afaria Bortzirietako eskolako bertsolariekin.
- Tantirumairuko** taldea (Oningo piratak) agertuko da igande honetan ETBko "Piratak" saioan.

ALBARTETXEA
JATETXEA

Otordu goxoak sutondoan
Asteartea itxita

Antoiu 26
Tfnoa: 948-627622
LESAKA

XATURETXEA
FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 **LESAKA**

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 **LESAKA**



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

Herriko Etxeko eta piszinetako obren adjudikazioa egin da

Lesakako Etxartek eta Sunbillako Gazmendik burutuko dituzte lanak

ANABEL eta ALBERTO

Lesakako Sarobek Herriko Etxeko obra egiteko eskeintza utzi ondoren, adjudikazio berria egiteko eskeintza aukera ireki zuen Udalak. Honen ondorioz, bera ere lesakarra den Etxarteren eskeintza bakarra onartu du. Obren presu-puestoa 24 milioi ingurukoa da eta Urriaren azken-nerako bukatuko direla espero da. Bertzalde, piszinetako obren adjudikazioa ere egin da. Sunbillako Gazmendik aukeratu zuen Udalak, nahiz eta ez izan merkeena; bai, ordea, garanti haundiagokoa. Obraren kostua 51.000.000 pezetakoa da.



Udaberrian gaude. Metako belar hondarrak zintzilik, ardiek bazka berriari ekiten, artzain gaztea ikasten. PELLO Arg.

ETB ezin ikusiz

Frainen ETBko errepikagailu berria paratu eta Etxalarkoak kendu ezkerroztik, herriko toki batzuetan ez da ETB ikusten. Arazoa konpontzeko, bi

errepikagailu tiki herrian paratzea onetsi du Udalak. Hauen presu-puestoa 200.000 pezetakoa da. Bertzalde, herritar guziok ETB ikusi gabe pasatu ditugu egun batzuk. Zerga-

tik? Erraiten dutenez, denbora txarrak Frainen zer-bait hondatu zuen. Seguraski hau leitzen duzuenerako zuen etxeetan ETB ederki ikusiko da; gutienez hori espero dugu.

Auzolanak bai edo ez

Herriko Etxean auzolanez solasten arituak dira batzar batean. Hauek mantentzea edo ez mantentzea dudatan jarri da, arazoak ekartzen bait ditu, bai herritarren onespeneren aldetik, bai antolaketa aldetik. Horrela ba, oraingoz lehen bezala mantentzea erabaki dute, hau da, herritar bakoitzeko auzolan bat. Gai hau, dena den, ez dute baztertuko, hobetzeko modua bilatzen segituz.

LORA DENDA
TXURULA
 Bittiria LESAKA
 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza

KLOXKA

 Legia 11 - 63 06 64 BERA

ARRATZUBI
ardotegia
 Tfnoa.: 63 72 79
 Bittiria karrika - LESAKA

«U S O A»
 NEKAZARI KOOPERATIBA
 Ganaduarentzat
 pentsurik egokiena
 Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR



EROSLE
 LESAKA
 Kalitate-prezio arteko
 oreakarik hoberena
Frexkuena
zugandik
hurbilago
 Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

KOXKONTA

 Sagardotegia
ZABALIK
 Deitu
 erreserbak
 egiteko
 Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

KOSKILLA
OSTATUA
*Larunbatetan
 mus txapelketak
 sari ederrekin*
 Zarandia 4 - LESAKA

IGANTZI

ELA eta LABek aurkeztutako mozioa onartu zuen Udalak

Enplegu gehiago desegin ez dadin eta industrialde berriak bultzatzea eskatzen zen

OSKAR TXOPERENA

ELA eta LABek aurkezturiko idatzia onartu zen apirilaren 15ean burututako udal batzarrean. Bertan erraten denez, administrazio ezberdinei enplegu gehiago desegin ez dadin, zona industrial berriak bultzatzea eta errepideak moldata daitezkeen eskatzen zaie.

Bertze gai batera pasatuz, baita ere onartu ziren Nafarroako gobernuak paratutako baldintza edo kondizioak Baztango udala burutzat duen zonaldeko kirol proiektuan parte hartzeko.

☐ **San Isidro** eguneko nekazarien besta Arantzan izanen da aurten. Bertara



Gogotik goxatu zuten bertso bazkarira hurbildu zirenak, bikain aritu bait ziren bi bertsolariak. Tartean, aurtengoz azken txanpan dagoen gimnasia ere gaitzat erabili zuten.

Argazkiak: OSKAR



hurbildu nahi duenak kooperatiban edo juntakoei eman beharko dio izena.

☐ **Bake epaile** bera izanen dugu hurrengo ur-

tetan, aurkeztu zen baka-rrak ez bait zituen baldintzak betetzen.

☐ **Akats** nabarmena izandu genuen 107. *ttipi-ttapan*, San Juan Xarrera

etortzen den aita Lasa hil zela aipatzen bait genuen. Geroztik, jakin izan dugu honen anaia, apaiz frantziskarra baita ere, dela hila eta ez bera. Barkamenak.

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia



Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - LESAKA

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mobleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - LESAKA

Larunbat
arratsaldetan
zabalik



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta

- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



Nekazarien Eguna herrian ospatuko da aurten

Xabi Agesta eta Eduardo Telletxeak, bertzalde, debuta egin dute pilotan

MIRARI eta MARTA

Nekazarien patroia, San Isidro ospatzeko, Arantzako Bostak Bat eta Igantzi San Juan Xar kooperatibak besta bat antolatu dute. 12,30etan izanen omen da meza eta ondotik, berriz, Aterpen bazkaria, Jose Luis Gorrotxategi eta Joxe Agirre bertsolariekin. Bukatzeko berriz, Modesto akordeolariarekin dantzaldia.



Aurtengoan herrian bilduko dira Igantzi eta Arantzako kooperatibetako nekazariak, beraien eguna ospatzera

Pilotari berriak ditugu Arantzan

Xabi Agesta eta Eduardo Telletxeak apirilaren 17an egin zuten debuta, Arantzan bertan benjamin mailan. Lehenengo kontrarioak Irungoak zituzten

eta 18-9 irabaztea lortu zuten. Hurrengo astean, Beran lesakarren kontra jokatuako partidoan ere 18-4ko emaitzaz irabazi zuten. Astearte eta ortzira-lero entrenatzen omen dute, Patxiku Lukanbio entrena-

tzaile dutelarik.

□ **Nafarroako** txapelketan Arantzako Herri kirol taldeak lehengoan jokatatu zuten finala Lakuntzan. Kadete mailan sokatiran bigarren gelditu ziren eta infantil mailan, bai

sokatiran eta bai proba konbinatuan hirugarren gelditu ziren.

□ **Elizan zikoina** bat ikusteko aukera izan dugu aurreko astean. Dirudienez, herria ez zuen arras gustoko abudo joan baitzen.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna



Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN

LAINO

LIKIDAZIOAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

- × HERRIAK
- × MENDIAK
- × TURISMOA
- × TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAKA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

SUNBILLA

680 kilotan sokatira txapelketa larunbat honetan


Haurrek bigarren postua lortu zuten proba konbinatuan Nafarroako Jolas Kiroletan

IXABEL eta JOSUNE

Hilaren 8an arratsaldeko 7etan eta Sunbillako pilotalekuan Nafarroako sokatira txapelketa jokatuko da 680 kilotan. Txapelketa honetan Sunbilla, Amaiur, Basaburua-Baztan, Ultzama, Lesaka, Araiz-Betelu, Erratzu eta Txantreako taldeek parte hartuko dute.

Aipatu behar da joan den urtean Sunbillako taldea izan zela txapelduna maila honetan.

Bertzaldetik, haurrek Nafarroako proba konbinatuaren txapelketan bigarren postua lortu zuten. Aurten haurren faltan talde



Sunbillako 680 kilotako sokatira taldeak iaz lortutako txapela mantentzen saiatuko da larunbat honetan herrian bertan

bakarra osatu dute herritarrek. Erran beharra dago paper hagitz ona bete zutela. Finala Lakuntzan jokatuko zen eta borroka haun-

dien ondoren Irurtzongo taldea garaile atera zen, bigarren Sunbilla 3 dezi-matara eta hirugarren aranztarrak.

Idazkaritzako ordutegia

Herriko Etxeko sekretarioa berriro lehengo ordutegian hasi da lanean. Goizeko 7,30etatik eguerdiko 1,30etara eta betiko idazkaria, Manolo Irigoien etorri da berriro, euskara ikastaroa akitu ondoren.

Koneju granja berria

Bigarren untxi granja altxatzen ari dira herrian. Eraiketak orain dela hiru aste hasiak dira eta badirudi laister martxan ikusiko dugula. Lehendabiziko granja Juanito Jorajuriak jarri zuen eta oraingoa berri, Joxemi Petrirenak.

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan
 ttipi-ttapa HARTZEN DUTE
 ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE

GAZTANDEGIA
 Etxeko Ardi Gazta



LIZUN

Petxenekoborda
 Tfnoa: 45 08 62
 SUNBILLA

CRISTALERIA VELATE

- Kristaleria orokorrean
- Barnekaldeen dekorazioa
- Bainurako mobleak eta manparak
- Pareta ispiluak
- Bidriera artistikoak

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe

Villaba Etorbidea 12 - IRUÑEA ☎ 132021
 Merkatarien karrika 5 - DONEZTEBE ☎ 450991
 Pedro Axular 1 - ELIZONDO ☎ 580825

NATUR eta ESKU TERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono hontera:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**

Artzeko Etxeberrian gaztandegia egiten ari dira

Aurten lehen gaztak egiteko helburua dute

PELLO ETXEGIA

Artze auzoko Etxeberrikoek gaztandegi bikaina egiten ari dira Berrauko belagi batetan. Etxeberrikoek igandero laguntzera joan diren mutilei aunitz eskertzen diete. Nahiz eta batzuetan, bertan egindako bazkari eta tragoekin lan gutxiago egiten zuten. Laister akituko dute eta aurten gazta batzu egiteko asmoa dute. Ea bada gazta onak ateratzen zaizkien.

Urik gabe

Bertzalde, urik gabe egon gara hiru egunez. Tuberiak zahartu dira eta hemendik aurrera horrela maiz izanen dugu. Halere, auzoetan iturri ederrak di-

tugu eta hortik garraiatzen genuen pozalka etxetara.

Elkarri

Elkarri, bakea eta elkarriketaren aldeko mugimenduak bileratto bat an-

tolatu zuen Donezteben, Malerrekan ezagutzera emateko asmoz. Momentuz, Donamaria eta Zubietan egin dira bilerak, lagun franko bilduz.

Inguruko herri gehienetan aurkezpena egitea dute helburua, jendeak informazio gehixeago izaterakoan, Donezteben egiteko aurkezpen orokorra.



Etxeberrikoek gaztandegia aurten martxan jartzeko asmoekin dabilta


 *Beatriz*
ILEAPAINDEGIA
San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumek
- ❖ Bitxitegi fina

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

LORE TOKI
UDABERRIKO LOREAK
Geranioak, Salbiak, Petuniak, etab...
Zure balkoian ikusi nahi dituzun landare mota guztiak
NARBARTE - ☎ 592200

TELLETXEA
MOBLEAK



Moble erakusketa haundia

- Edozein era eta neurriko altzariak egiten dira. Fabrikanteak gara.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

FM FOTO MENA ELIZONDO
Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

DONEZTEBE

Etxegorriko Pilar Garrok 100 urte bete ditu

Alkateak plaka bat eman zion oroitzarri gisa bere urtebetetze egunean

TXEMA ALDABE

Pilar Sunbillako Arretxokobordan sortu zen 1893ko apirilaren 29an. Mendaur mendiaren magalean bizitu zen 11 urteak arte, ardiak lagun zituela. Hameka urtetan neskame joan zen Amaiurrera eta gero Elgorriagara. Hemen ezagutu zuen bere senarra izanen zen Marcelino eta ezkondukoan Andutzera joan ziren bizitzera. Han lau urte eman ondoren Oteizako Etxegorri base-rrian eman ditu gainerako urteak.

Joan den apirilaren 29an Doneztebeko alkateak, Migeltxo San Migelek Pilarren urtebetetzea zela eta plaka bat eman zion oroitzarri gisa.

ttipi-ttaparen partetik, aunitz urtez Pilar.

**Alondigan
etxebizitzak...**

egiten hasiko dira abu-



Pilarrek 12 senide zituen eta berak ere 13 semealaba, horietatik 6 bizirik daude. Gainera 11 biloba eta 8 berbiloba ere baditu.

do, dagoeneko Alondiga zaharra botaria baitago. Lurra herriarena bada ere, egingen diren 6 pisuak Juanena-Mariekurrena egilearen esku geldituko dira eta beheko aldea udalarentzat, egindako tratua araberara. Elizagibelan egingen den azkeneko blokearen kasuan bertzalde, azkeneko tratua araberara bloke osoa udalaren esku geldituko litzateke.

Askin eta Amezti-ko bideak...

moldatzeko proiektua azkeneko udalbatzarrean onartua izan zen eta Mendi Sailera igorria, honek %80ko dirulaguntza ematen duela.

Askinen bide moldaketa antenaraino egingen litzateke eta Amezti-ko berriz, ur-depositotik Aldapaundiraino.

ttipi-flash

Liburuzaina izendatzeko deialdia aterako da hemedik guttura Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Baldintzen artean, euskaraz jakitea beharrezkoa izanen da.

Doneztebetik Elgorriagaraino egin asmo diren espalio edo bidebaterren proiektua egitea Santiago Sainz de los Terreros ingeniariari ematea erabaki zen azkeneko udalbatzarrean.

Larunbat arratsetan Bordatxo azpikaldean furgonetetan egoten diren hamburgesa eta edari saltzaileek ez dute inolako baimenik, antza denez. Udalak egindako bilkuran saltzaile horiek han egotea galeratzeko neurriak hartzea erabaki zuen.

BELARRA Kafetegia

Plater kombinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



**AMEZTIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE



**SANTAMARIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

Bizitza, berritza har dezakegu?

JUAINAS

Ikastaro bat bukatzea? ▶

Helduko den negurako, majo kostatako lotea dagoeneko prestatzen aritza? ▼



*"Elutsa" elkarte
antolatu bitarte,
eskolatik
etortzea?*

*Bai, gure idurin!
Ez gero lotsatu!*

*Apirilaren 19an
hil zen Frantzis-
karentzat, ziur
naiz, ez dugu
agurra hobe
bidaltzerik!* ▶



MALERREKA

Osasun Batzordearen bilera burutu zen

Osasun etxearen inguruaren urbanizazioa bere gain hartuko zuela hitza eman omen zuen kontseilariak. Hitzaz hartutako konpromezua gogorarazteko idatzi bat igortzea erabaki zuen batzordeak.

Herrietan, ur klorazioaren egoera ezberdina dela ikusirik, Mankomunitatea eratu ondoren eskualdeko ur biltegi guzien (gutxienez 18) klorazioaz arduratzeko enpresa bat kontratatu beharraz eztabaidatu zen.



Titaren

A R R O P A K

*Udaberriko arropa
koloretsuak*

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA

ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

ITUREN

Soranoko larrean luberria ateratzeko proiektua dago


Horrekin batera, Mendaur aldeko pista moldatzeko aprobetxatuko da

ITUREN

Guzira 9 milioi pezeta inguruko aurrekontuarekin, Soranoko larrean luberria ateratzea eta Mendaur alderako pista moldatzea erabakia du udalbatzak. Bederatzi milioi horietatik ia 8 Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu.

Plazako berritze lanekin...

aintzina egiteko, oraingoan Nafarroako Gobernuak Kirol Departamentuari dirulaguntzak eskatzea erabaki da. Eskatutako laguntza eskuratzen denean, aintzin pareta mol-



Laguntzak eskuratzerakoan, aintzin pareta moldatzeari ekinen zaio

datzeari eta sare berriak jartzeari ekinen zaio.

Herriko Etxetik adierazi dutenez, bertalde, plazan egin diren azken lanak Hezkuntza Departamentu-

tik eskuratutako dirulaguntzei esker egin dira baina halere, nahi bezala bukatua uzteko laguntza gehiagoren beharrea aurkitzen da udala.

Zuzenketa

Aurreko alean intsumisioari buruzko mozioak zirela eta, 'udalbatzak ezetza eman ziela mozioei' agertu zen titularretan. Iturengo idazkariak luzatutako Ziurtagiri batean ageri denez, "mozioak onetsi dira, HB eta Talde Berriko zinegotzien aldeko 2 botoekin eta EAko zinegotzien abstentzioarekin".

Gai honekin loturik EAko talde muzizipalak adierazi duenez, «soldaduzkaren aintzinean aukera guziak errespetagarriak direla» uste du, «soldaduska egin nahi dutenena eta intsumisoena barne».

BEINTZA-LABAIEN

Konponketen ondoren, berriz martxan da inzineradora

Elizako estalpea ere moldatzen ari dira

PATXI OTXANDORENA

Beintza-Labaiengo zabor erregailua, Malerreka zaborrak erretzen dituen, berriz martxan da beharrezko moldaketak egin ondoren.


Lanak 7 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan dute. Konponketak egiten ziren bitartean Malerreka zabor eta bidrioak Berara eramaten ziren,

bertan tratatuak izan zitezzen.

Elizako estalpean moldaketak

Moldaketa kontuekin segituz, aipatu behar da eliza ondoan dagoen estalpea konpontzen ari dela apaiza.

Ildorpe honen konponketan jendearen laguntza haundia izaten ari da, batez ere diru aldetik.



Lehen Herri Olinpiada maiatzaren 15ean

Sei lagunetako taldeak osatu beharko dira Umore Onak antolatutako ekintza honetan

ESTEBAN AROZENA

Umore Ona elkarteak eta beraiek diotenez "gure herriko kirol zaletasuna bultzatu nahian" goizuetar askorentzat bereziak izan daitezken proba batzuk antolatu ditu «lehenbiziko Herri Olinpiada» izenarekin.

Olinpiada hauetan parte hartu nahi dutenek sei laguneko taldeak osatu beharko dituzte, gutxienez taldekide bat emakumea izan behar duelarik.

Erreleboak, karretilla apostua, zaku laisterketa, koxkor apostua, trontza eta zaku apostua dira lehen faserako antolatutako frogak. Finalean berriz, koxkor



«Herri Olinpiada» guztiok kirol egiteko aukera bikaina da

apostuari, trontzari, laisterkari eta zaku apostuari aurre egin beharko diote kirolariek. Ez dago esan beharrik, noski, finalera ailegatzen diren taldeek sari ederrak eskuratzeko aukera izango dutela.

Euskal ekitaldiei dirulaguntzak

Euskararen inguruan burutzen diren hainbat ekintzek udalaren dirulaguntza jaso zuten korporazioak ospatutako azken

batzarrean hartutako erabakien arabera. Bukatu berria den AEKren "Korrika"rentzat 25.000 pezeta; herrian bertan antolatu zen Korrikarentzat 5.000 pezeta; ekainaren 20an Laudion ospatuko den "Araba Euskaraz"entzat 20.000 pezeta eta Urrian Altsasun egingo den "Nafarroa Oinez"entzat 25.000 pezeta.

Gazte Asanbladari ere laguntza

Hauetaz gain, Gazte Asanbladak ere 50.000 pezetako laguntza jaso zuen azken hilabetetan antolatutako ekintzetan izandako diru galerak nolabait estaltzen lagundu nahian.

ARESO

Mus txapelketaren finala

JUANA MARI SAIZAR

Ohiturari jarraituz ospatu zen Pake-Toki elkartean XIII. mus txapelketa. Apirilaren 24ean egin zen finala eta ondoren afari eder bat. Hamabi bikotek parte hartu zuten eta oso interesgarria izan zen, agian luze xamarrara. Lau bikote hoberenak jokatu zuten finala, sortez bi bikote beste bien aurka



Pake-Toki elkarteko mus txapelketako garaileak

JOSETXO

eta irabazleak elkarrekin. Aurten Kiko eta Joxe Ramon izan dira irabazleak eta bigarrenak Geno eta Luis.

Txapelketa honen helburua ez da joko bereziki, jendea bildu eta harremanak sakontzea baizik. Batez ere hau

nabaritzen da afari egunean, jende asko elkartzen baita eta giro bero beroa sortzen dute. Sari banaketan hor hasten da botila hotsa eta txanpaina irekitzen eta ondoren farre eta algara ugari.

□ **Hilaren 7an** hitzaldia izangoa da Erasonean, arratsaldeko 3etan. Gaia, "Gaztetxoak" izango da.

□ **316 biztanle** ziren 1990. urtean Areson eta zentsoan berriz, 251. Momentu honetan 296 lagun dira botoa eman dezaketak.

Maiatzaren azkenean Kultur Astea izango da

Tolatxeneko atabaleroei omenaldia egingo diete

JOSEBA AZPIROZ

Maiatzaren 14tik 23ra bitarte Kultur Astea ospatuko da beste urte batez, antzerkiak, eskalada saioak, harri, koadro, seilu eta moneta erakusketak, malabarrismo ikastaroa, mahai-ingurua, bertsolariak, kantaldiak, txirringularien eguna, XIII. eskulangintzaren erakusketa, bazkari herrikoia etab. antolatu dituztelarik.


Kultur Asteko egitarauaren barnean, hilaren 16an, Udalak, Aurrera Kirol Elkarteak eta Kultur Taldeak Tolatxeneko atabaleroei omenaldia egingo diete.

260 kirolari

Leitzako Crossean

260 korrikalaritik gora izan ziren XV. Leitzako Crossean. Irabazleak berriz hauek izan ziren kategoriz kategori eta kanpokoak eta bertakoak bereiztuz.

Infantiletan: 1.- Iraitz Uriarte. **Benjaminetan:** 1.- Oinatz Bengoetxea. **Alebinetan:** 1.- Javier Aguado (Ibarra), 2.- Xabier Zestau. **Jubeniletan** 1.- Alvaro Erbiti (Artika), 4.- Aitor Me-



Aurtengoa ere izango da zer ikusi eta zer dastatu hamabostgarren aldia betetzen duen Kultur Astearen barnean

rino. **Seniorretan:** 1.- Juan Mari Garin (Zizurkil), 21.- Angel Mindegia. **Emakumetan:** 1.- M^ñ Carmen

Ariztegi (Ituren), 4.- Juli Sagastibeltza. **Beteranotan:** 1.- Enrique Kabiketa (Arrasate), 8.- Jostxo Zabaleta.

W ttipi-flash

I. Mendi Asteak oso harrrera ona izan du eta antolatzaileek datorren urtean bigarrena ospatzeko asmoa agertu dute. Zentzu horretan, Nazioarteko Mendi Astea antolatzen duen Gasteiz mendi taldearekin harremanetan jarriak dira dagoeneko, datorren urtekoa aurtengoa bezain interesgarria izan dedin. Denetara 500 lagun inguruk parte hartu dute lehen aste honetan.

Gaztetxearen inguruan duela lau urte t'erdi izandako istiluen ondorioz orain bi urte leitzar gazte batzuk epaituak izan ziren eta urte bateko kartzela zigorra ezarri zieten. Sententzia horren aurka errekurtsoaz erabaki behar zuten Madrilan apirilaren 26an.

Udaletxeko ateari su eman zioten eta markatu ere egin zuten apirilaren 22ko gauean, 26.000 pezetako galera eginez.

Aurrerak 6-0 irabazi zion Etxabakoitz-i Federazio koparen barnean.

Lorea eta Idoloa

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

SAGASTI
Jatetxea

Bokadilo goxoak eta
paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO



JUAN LARREGI

NEKAZAL TRESNERIA

Santiago karrika 10 • Tfnoa: 580898 • ELIZONDO

BELAR - MOZTAILEAK

Zure belar - moztaille erabilia nahi dugu
Preziorik onenean ordainduko dizugu




Ez du inporta zein markakoa, ez du inporta zein egoeratan

DESBROZADORAK

Hiru sueka, garantizatuak

- 🏠 2 urtetako garantia osoa artikulazioan
- 🏠 Urte bateko garantia piezetan eta esku lanean



Husqvarna

BAZTAN

Eguraldi txarrak hainbat gauza hondatu ditu

Martxoko feria, Nafarroaren eguna eta Xorroxin irratiko errepetidorea, bertzeak bertze

JOSEBA IGARABIDE

Nahiz eta apirilaren izan, Elizondoko martxoko feriak joan ziren. Eguraldi txarrak eguna hondatu zuen. Hala ere jendea plazara hurbildu zen eta tailerrak zalantzan egon baziren ere, makinaria ere ikusi ahal izan zen.

Rock kontzertua eta bertso saioa

Erratzun rock kontzertua maitzaren 8an, EH Sukarra, Julio Kageta eta Alkolerria taldeekin, Xorroxin irratia antolatutik. Bertsolariak ere izanen dira egun berean Elizondon, Amaiurko kirol taldeak antolatuta.

Ruta Xacobearen txirrindulan

Club Ciclista Baztandarako hiru kide Santiago de Compostelara joan dira txirrindulaz Ruta xacobearen eginez. Apirilaren 22an ateratu ziren Elizondotik.

Baztandarren kooperatibaren kontu ematea

Apirilaren 23an Baztandarren pentsu kooperatibak biltzar nagusia egin zuen eta



Aitor Ruiz de Larrinaga intsumiso elizondotarra epaitu zuten Iruñeako auzitegian, soldaduska eta ordezkotza zerbitzua egin nahi ez izateagatik. Mobilizazioak prestatu dituzte antimilitarista taldekoak eta maiatzaren 29an manifestazioa eta kontzertua izanen da Elizondon.

bertan 1991-92ko auditoria bat aurkeztu zuen. Han azaldu zenez, 1991an

20.539.926 pezetatako galera izan zen eta 1992an 2.709.922 pezetatakoa.

W ttipi-flash

- Xorroxin irratiko errepetidoreak kalteak jaso ditu oinezturen ondorioz eta aste betez ez da emisiorik izan.
- Nafarroaren Egunean baztandar ugari ikusi ahal izan zen Baigorri aldean.
- Erratzuko haurren eskola zaharra herriko etxeak moldatu eta etxebizitza sozialak egiteko asmoa du.
- Amaiurko kanposanturako bidea moldatua dute bertako bizilagunek auzolanaren bitartez.

Amaiurko Erdiko bidea zabaltzea erabaki zuen herriko batzarreak

IXABEL ALEMAN

Aukeran, zubia konpontzea edo Erdiko bidea -3km. inguru herritik Ponpulusta baserriraino zabaltzea zeuden. Batzarrea bigarrenaren alde agertu zen. Zenbait baserritarren belagiak hartuko ditu proiektu honek, baina hauek ez zuten problema-rik paratu eta Hirurteko planean sartuko du Udalak



Gaur egun kamioiak ezin dira pasatu sarrerako arkutik

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Arropak eta konplementoak
Opariak

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Basaburuako kadeteak Nafarroako txapeldun

Neskek eta 680 kilotan mutilek ere, hasia dute denboraldia

PABLO MENDIBURU

Aurtengo denboraldiari hasiera ezin hobea emanez, herri kiroleko kadete mailakoek sokatiran eta proba konbinatuan Nafarroako txapela irabazi zuten apirilaren 25ean Lakuntzan. Neskak Burgosen ibiliak dira, Berriozarreko eta Berako neskekin batera estatu guztiko kirolariak bildu ziren erakustaldi batean herri kirola nolakoa den erakutsi zuten. Aurten jende berria sartu da taldean. Aipatzekoa da kirolari gehienak oso gazteak direla txapelketak talde gazteena osatuz.

Datorren larunbatean, maiatzaren 8an, Sunbillako frontoian 680 kilotako



Herri kirol taldeko emakumeak exhibizioak egiten ibili dira Burgos aldean eta mutilek berriz, larunbat honetan dute lehen txapelketa (680 kilotik azpiko kategorian) Sunbillan

sokatira finala jokatu da. Basaburuako taldeak ere parte hartuko duelarik.

□ Urtero bezala apirilaren azken igandean Zigatarrrak San Marcoseko ermitara joan ziren meza entzu-

tera.

□ Berroeta eta Almandozen herriko bestak prestatzen hasiak dira. Berroetakoak maiatzaren 28an hasiko dira eta Almandozkoak berriz, ekainaren 9an.

W ttipi-flash

□ Bidasoako Izokiaren Elkartearen kide bezala izendatuko dute Baztango bailara datorren ekainaren 13an Elizondon.

BAZTAN FUNERARIA

HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK

Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

Eskiarari jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO



GESPAM, S.L.

Mendinueta 12 • ELIZONDO
Tfnoa eta Faxe: 45 21 92

M^º JOSE DEL MORAL ARIZTEGI

☛ GESTORIA ADMINISTRATIBOA

☛ ASEGURUOK:

GAN – AEGON – AGF

☛ KONTSEJUAK:

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontuetan

Zerbitzu integrala enpresarientzat

Deitu konpromisorik gabe!!

M^º Dolores Mirana TOPOGRAFIA

NEURKETAK • PLANOAK



Lur neurketak
Luberririk

Plantazioak, etab.

Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO



FOTO ZALDUA

KOMUNIOAK

Kanpaina berri honetan eskeintzen dizkizugun oroitgarrien artean baduzu non aukeratu.

Hartu ordua:

ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364

EGUN HAUNDI BATETARAKO
OROITGARRI ON BAT

URDAZUBI

Herriko gazte taldea egon da abelzantza ikastaroetan

Bukatu dira aurtengoz, Oronoz-Mugairin emandako klaseak

ALIZIA OLAIZOLA

Ikastaro hauetan Urdazubitik lagun talde bat izandu da, batzuk abelzantza ikastarorat eta bertze batzuk nekazal gestio eta kontabilitate ikastarorat. Zugarramurdi, Urdazubi, Baztan, Malerreka eta Bortzirietako nekazariarentzat zuzenduriko ikastaro hauek ITGk antolatuak zeuden, Nafarroako gobernu eta INEM erakundearen babesaz eta Oronoz Mugairiko San Martin lanbide eskolan burutu dira. Ikastaro hauek eginez gero lortzen den diploma beharrezkoa da base-rietan egin nahi diren obretarako laguntza eska-



Nekazal gestio eta kontabilitate ikastaroa 92-93 egiz duten batzuk

tzeko.

Kinto bestak segitzen

Apirilaren 24ean, 1942ean jaiotakoak egin zuten bere kinto besta, bazkaria Armuan eginez eta

arratsean 1944-45 eta 1946an jaiotakoak, afaria eginez Armuan baita. Ondotik, dantzaldia Modestorekin.

☐ Urdazubi-Zugarramurdiko eskolako haurrak joaten dire asteazken arra-

tsaldetan Zugarramurdiko eskolarat txotxongiloak egiten ikasterat, Zugarramurdiko Estefania eta Mikelek erakutsiz. Orain dela hilabete bat hasiak dire, Nafarroako gobernuak subentzionatua izanez.

SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



- **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...
- **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**
- **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**
- **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**
Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

Praktikak:

Aste bat eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

Nor matrikula daiteke?

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

EUSKARAZ eta ERDARAZ

Hizkuntza: Euskara eta Ingelesa

Badugu ileapaindegi berria herrian

Bertzalde, Kepa Junkera eta Izan etorriko dira ekainaren 19ko gaupasara

KORO eta MARGARI

Orain arte gure buruko ileak itxuraz aldatu nahi genuenean Urdazubi, Lesaka edo Elizondorat gan behar ginuen.

Orain berriz ez dugu lan hau hartu beharko Mertxe Irazoki pelukerak herrian berean ileapaindegi bat ireki baitu, bai emakume bai gizonentzat. Ileagaindegi hau Martinean kokatua dago eta bere izena "Errekamari" du (Errekamari erreka bazterretan agertzen zen lamia edo sorgin bat zen egun guztia ileak urrezko orraxa batekin apaintzen pasatzen zuena).



Martinean kokatua dago "Errekamari" ileapaindegi berria

Aurtengo gaupasa ekainaren 19an

Aurtengoan, lezean urtero urtero egiten den Ake-larre-gaupasa ekainaren

19an ospatuko da.

Kepa Junkera trikitalariak eta Izan taldeak animatuko dute gaua, beti etorri ohi diren joaldunak eta sor-

ginekin batera.

Eta hauetik aparte bada-kizue... zuen irudimenak nahi duen guztia.

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

IRAGARKI HAU 5.400 ETXETAN
SARTU DA
ZUREA ERE SARTUKO DA
PUBLIZITATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZ GERO

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



ARLA
ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa.: 45 32 66
ELIZONDO



JATETXEA

Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

5.400 harpidedun
18.500 irakurle *

* Nafarroako gobernuaren audientzia estudioaren datuak

SARA

Asteburu honetan Herri Urrats ospatuko da

Larunbatean Herri Urrats gaua Saran, Igandean urterokoa Senpereko lakuan

MIXEL eta JACQUELINE

Maiatzaren 8an gaupasa izanen da Saran, Lin Ton Taun eta Negu Gorriak taldeekin. Biharamonean, Herri Urrats Senperen. Bakoi-tzaren laguntza beharrezkoa zaiku euskararen alde.

Joko Garbi

Orai hiru aste hasi da Euskal Herriko xapelketa bigarren mailan. Lehen partida galdu bazuten ere 50 eta 15 Baigorriren aurka, apirilaren 24ean saratarrek beren errebotean Ustaritz IV taldea garaitu du 50 eta 47. Gure herriko partaideak Calvet Philippe, Pouyet anaiak, Fagoaga anaiak, Indo David Caillabet Jean.



Iraultza garaiko deportatuak gogoratu ziren Bazko astelehenean

JOYEMANUEI

INTZA

“Euskal idazleen biltzarrek” arrakasta gaitza ukan du. Iaz bezala, kirol aterpe berrian egin den liburu erakusketara jende aunitz hurbildu da. Bertan,

Ekaina argialetxeak plaza-ratu berri duen Sarari buruzko liburua, bat baino gehiagorentzat erakargarri suertatu delarik naski.

Dena den aurtengo edizioak zuen berezitasun nagusienak jendez bete zuen

herriko plaza. Hor baitziren auzapezaz gain herritar andana bat. Frantses iraultza garaiko deportazioen simulakroa behatzerat etorriak. Eguerdirean, abiatu zen Gaztetxetik plazara deportatuen prozesioa; 8 herrietako ehun bat gaztek parte hartu zuten. Zaldi, zizpa eta abarkarik ez zen falta. Gaztetxean, partaide guzietan aperi-tifa eskeini ondoren, Sara, Urruña, Azkaine, Itxasu, Ezpeleta, Makea, Hendaia eta Biriaturko gazteek Bara-chartearen ostuan bazkaldu zuten, holakoetan izaten den giro onean... Arratsaldeko 6etan, Gure Irratiak elizan antolatutako kantaldiak, bestari goizalderaino eman zion segida.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

Beatriz Apaindegia

Espezializatutako zentru akreditatua
Larruazalaren garbiketa, aurpegi eta gorputz
tratamenduak, depilazioak, masaiak, sauna eta solarium.
Zatoz eta “Importancia de tu imagen” liburua
oparituko dizugu

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak
Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

25 urtetako esperientzia

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8
Tfnoa: 943-616603
IRUN



Pasajes 3
Tfnoa: 943-511598
ERRETERIA

EZKONTZAK

Severiano Albiasu Perurena eta **M^a Milagros Azkarraga Zubiri**, NARBARTE eta AZPILKUETAKOAK, apirilaren 17an.

Jesus Muñoz Amorena eta **Mai-te Elizegi Goñi**, ELIZONDO eta GARTZAINGOAK, apirilaren 24an.

Jose Maria Aiestaran Irazusta eta **M^a Isabel Zestau Zestau**, ZALDIBIA eta TOLOSAKOAK, apirilaren 24ean.

Oskar Mindegia Bidegain eta **M^a Jose Iribarren Iribarren**, DONEZTEBEKOAK, apirilaren 17an.

JAIOTZAK

Leticia Perez Arnela, ELIZONDOAN, apirilaren 6an.

Idoia Migeltorena Etxenike, ARIZKUNEN, apirilaren 5ean.

Maite Etxeberria Aleman, ELIZONDOAN, apirilaren 14ean.

Begoña Tapia Altzuguren, LESAKAN, apirilaren 24ean.

Amaia Lukanbio Larretxea, ARANTZAN, martxoaren 23an.

Maite Larretxea Zilbeti, ARANTZAN, martxoaren 21ean.

Mikel Olaetxea Lizarraga, LEITZAN, apirilaren 16an.

Nekane Iruretagoiena Arregi, DONEZTEBEN, apirilaren 3an.

Jorge Ostiz Eskalada, DONEZTEBEN, apirilaren 25ean.

Jokin Arretxea Lastiri, NARBARTEN, apirilaren 16an.

Asier Gamio Igoa, NARBARTEN, martxoaren 31an.

HERIOTZAK

Macaria Madurga Jimeno, ELIZONDOAN, apirilaren 12an, 86 urte.

Domingo Ibarrola Iribarren, ERRATZUN, apirilaren 19an, 75 urte.

Bernardo Antxordoki Jaunsaras, ELIZONDOAN, apirilaren 19an, 81 urte.

Isabel Mendiberri Larunbe, ELIZONDOAN, apirilaren 20an, 90 urte.

Bonifacio Iturriria Etxenike, ERRATZUN, apirilaren 22an, 39 urte.

Pedro Miguel Amiano Garro, ELIZONDOAN, apirilaren 26an, 82 urte.

Jose Leon Bertiz Iparragirre, SUNBILLAN, apirilaren 21ean, 80 urte.

Javiera Sanzberro Landa, ELIZONDOAN, apirilaren 27an, 80 urte.

Francisca Baleztena Arozena, ZUBIETAN, apirilaren 19an, 84 urte.

Felicitas Suso Chipi, BERAN, apirilaren 25ean, 80 urte.

Dolores Burlada, ARANTZAN, apirilaren 21ean, 61 urte.

Florencio Etxepare, ARANTZAN, apirilaren 14ean, 61 urte.

Genoveva Lujanbio Zubeldia, GOIZUETAN, apirilaren 14ean, 91 urte.

Eulogia Telletxea Arangoa, LEGASAN, apirilaren 27an, 75 urte.

Luisa Tomasena Dendarieta, ZUGARRAMURDIN, apirilaren 10ean, 83 urte.

Lourdes Etxegia Goñi, DONAMARIAN, apirilaren 26an, 55 urte.

KALITATEZKO ETXEBIZITZAK AUKERAKO PREZIOAN IGANTZIN

- 90 m² erabilgarriak, bi balkoi zabal bi aldetara zuzenduak eta bajeak.
- 125 m² erabilgarri duten bi txalet, bakoitzak lau balkoi bere 70 m²tako bajerekin eta bakoitza 250 m² baino gehiagoko baratza edo jardinarekin.

Kalefakzio indibidualaz hornituak. Sukalde, bainu eta balkoietan gres-a. Etxebizitzaren gainerako zola "elondo" zurezko tarimarekin estalia. Isolamendurako kalitate oneneko materialeak, pinturak eta ezaugarriak.

Aukerako prezioak kalitate haundiko etxebizitzentzat

Informazioa 270511 eta 258941 telefonoetan

Zelulitisa: Emakumeen burukomina

Tratamendu ezberdinak egon arren, majikorik ez dago bapatean kiloak kentzeko

Jean Paul Bouchet doktorea 25 urte bete ditu medikuntza lanean, akupuntura, kiropraxia, homeopatia eta estetikan.

Frantziako medizina-estetika institutuko lehendakaria da eta ikastaro aunitz eman ditu teknikoentzat.

Estetika lanetan aritzen da, zelulitisa, mehetzeko dietak, zimurrak eta zirkulazio arazoetan Miarritzen astean lau egunez. Donezteben berriz, zelulitisa eta dietak bakarrik lantzen ditu

astean behin, horretarako Amaia Pikabearen lankidetzarekin kontaktzen du.

Lagunen eskutik ezagutu du zonalde hau, nahiz eta bere arbasoak Elizondon sortuak izan. Hemengo jendea oso gustokoa du.



Udaberria ailegatzean sortzen dira kiloak kentzeko prisak

Zelulitisa emakumezkoen berezitasuna da, gizonezkoak ez bait dute izaten. Gaur egun nondik eta nola sortzen den ez jakin arren hormonekin zerikusia duela uste da. Emakumezkoen hormonak orekatzen diren unetik (hamabortz urte aldera) sortzen da arazoa.

Odolaren zirkulazioa, digestioak-idorreriak eta hilerokoarekin arazoak izateak zelulitisaren problema makurtzen dute, hau dela eta

lehenago arazo horiei konponbidea bilatu behar zaie lehenik. Bertze aldetik zelulitisa kendu nahi duten emakume batzuk oso lodiak daude eta dieta orekatu batzu behar izaten dituzte, erlazio zuzena bait dago zelulitisa eta loditasunaren artean.

Zirkulazio txarra oso inportantea da zelulitisaren arazoan eta neguan jendea gutti mugitzen denez, bi arazo horiek areagotu egiten dira. Teknikoek urtean zehar zaintzea gomendatzen

dutelarik, kirola eginez ala ordu betez oinez ibiliz, dieta orekatu batzurekin eta ura edanez. Izan ere, zelulitisa egunero joaten da sortzen eta ez dago tratamendu majikorik bapatean desageritzeko.

Udaberria ailegatzen denean sortzen dira kiloak kentzerko prisak.

“Norberak bere burua egunero zaindu beharko luke, emakume bat ongi ikusten denean ispiluairen aintzinean, bere animoa oso bertzelakoa izaten da eta

bere bizitzan eragin handia du" dio Jean Paul Bouchet-ek.

Estetika kontutan jarraituta eta kiloen arazoan, batez ere, erran ez dela emakuzmezkoena soilik, gizonek ere loditasuna jektuko dietak, eta hemen gomendatzen diren kirola egitea etabar, praktikara eramatea ez liekela batera gaizki etorriko, dio Jean Paulek, horrela denok itxura eta osasun hobea izanen genuke, halere gizonak ez dira hainbertze kezkatzen bere estetikaz, nahiz eta bere burua ongi ikustea gustatzen zaien.

M. Karmele TOLOSA



Emakuzmezkoen hormonak orekatzten diren unetik (hamabortz urte aldera) sortzen da arazoa.

Jean Paul Bouchet, estetika medikua

«Bortz astetakoa da zelulitisa desagertarazteko tratamendua»

▶ Zein dira zelulitisa desagertzeko erabiltzen dituzun teknikak?

▶▶ Nik, mesoterapia erabiltzen dut (larru azpian urina desagertarazten duen produktu bat ziztatu). Produktu

hau naturala da eta bigarren mailako ondoriorik gabekoa. Halere, teknika honek min pixka bat egiten duela onartzen dut. Hiru teknika diferente erabiltzen dira, aipaturiko mesoterapia sabelean, izterretan eta belaunetan aplikatzen da; elektroterapia,

produktua urinan zabaltzeko eta drenaje linfatikoa, zirkulazioa hobetu eta toxinak kanporatzeko.

▶ Zenbateko luzapena du tratamendu honek?

▶▶ Tratamendu osoak bortz

«Mesoterapian, larru azpian urina desagertarazten duen produktu naturala eta ondoriorik gabekoa ziztatzen da»


astetako luzapena du eta hamabortz ordu orotara. Lehenengo bisitan emakumearen berezitasunak aztertzen dira eta tratamendu osagarririk behar duen ala ez erabaki, hau da dieta-

ren bat, hilekoarekin arazoak baditu moldatu, etab...

▶ Bertzelako tratamenduak egiten dituzu?

▶▶ Honetaz gain odol zirkulazioan esklerosisak (zaintan sustantzia bat ziztatu eta idortu) egiten ditut. Tratamendu hau neguan egitea gomendatzen dut, udan zangoak gehiago hazitzen bait dira be-

Zirkulazio linfatikoa behar bezala funtziona dezan, drenaje tratamendu bat ere egiten dugu oso inportantea bait da gorputzako toxinak kanporatzea.



Mikel Iturrarte, Leitzako arbitroa:

«Futbolaren ardi beltzak gara»

Lau urte daramazki epaile lanetan Nafarroako zelaietan barrena



*Mikel Iturrarte
Maiza 21 urtetako
Errekaldeko leitzarra
dugu. Gazte honek
afizio bitxi bat dauka,
arbitroa da. Hor
dabil, duela lau urtez
geroztik partiduak
arbitratzen, han eta
hemen, Nafarroa
osoan zehar.
Hau dela eta
guretzako hain
ezezaguna den mundu
honi buruz zertxobait
jakitearren Mikeli
hurbildu gatzaizkio.*

«Nortasun haundia eduki behar da arbitroa izateko. Partidu batean gauzak gaizki doazenean nolabait aurrera atera behar duzu, bestela partiduak jan egiten zaitu»

ttipi-ttapa. *Nondik nora sortu zitzaizun arbitroa izateko gogo?*

M. Iturrarte. Afizioz hasi nintzen, hontan jarraitzeko inolako asmorik gabe, beste leitzar batekin batera. Behin, "kakazelai" jokatzeko

diren partidu horietako baten ondoren, Nafarroako Arbitroen Kolejiara joatea erabaki genuen, informazio pixko bat jasotzeko asmoz. Baina behin hara joanez gero apuntatu egin ginen.

ttipi-ttapa. *Nolabaiteko*

prestakuntza berezirik eskatu zizuten?

M. Iturrarte. Baldintza bakarra 16 urtez gorakoa izatea da, eta fisikoki ongi egotea; gainera emakumeak ere sar daitezke. Ondoren 3 hilabetetako

ikastaro teoriko bat eta froga fisiko batzuk gainditu behar izan nituen.

ttipi-ttapa. *Zauden lekuraino ailegatzeko zein bide segitu duzu?*

M. Iturrarte. Lehen denboraldia linier, juez de linea

(marrazain) bezala egin nuen. Hor asko ikasten da, dena arbitroak baino lasaiago ikusten bait duzu. Gero mailaz igo nintzen, lehenengo regionalera, bertan bi urte egin nituen. Aurten berriz, regional preferentean nago.

Laburtuz, lau urte daramatzat arbitratzen. Ahal den denbora gutxienean igo naiz maila batetik bestera.

ttipi-ttapa. *Zein da momentu honetan Nafarroako Arbitroen Kolegioaren egoera?*

M. Iturrarte. Estatu mailan Nafarroakoa bigarren txikiena da, Arabakoaren atzetik. Hemen 105 arbitro bakarrik gaude, horregatik zailtasun asko ditugu, Madrillgo eta Batzelonakoek eskuratzen bait dituzte posturik gehienak, 5.000 eta 6.000 arbitro bait daude delegazio hauetan.

ttipi-ttapa. *Egia al da partidua arbitroaren eskuetan egoten dela?*

M. Iturrarte. Uste dut arbitroari kasu gehiegi egiten zaiola. Nahiz eta lan ona egin, gehienetan talde galtzaileak arbitroei botatzen dio errua. Futbolaren ardi beltzak gara.

ttipi-ttapa. *Beraz, arbitroa izatea gogorra da?*

M. Iturrarte. Bai, horregatik beharrezkoa da futbole-rako afizio handia izatea eta gainera balio egin behar du, nortasun handia eduki behar da. Adibidez, partidu batean gauzak gaizki doazenean nolabait aurrera ateratu behar duzu, bestela parti-



«Nahiz eta lan ona egin, gehienetan galtzen duen taldeak arbitroari botatzen dio errua»



«Linier edo marrazain moduan nengoenean jendeak beti zerbait botatzen zidan. Partidua bukatzerakoan kanpoan itxoiteko eta horrelakoak esan dizkirate»

dua jan egiten zaitu.

ttipi-ttapa. *Hau horrela izanik, jendearen aldetik kristonak entzungo dituzu...*

M. Iturrarte. Ikaragarriak esaten dizkirate. Linier moduan nengoenean jendeak beti zerbait botatzen zidan. Partidua bukatzerakoan kanpoan itxoiteko eta horrelakoak esan dizkirate. Baina afiziorik beroena Kaparrosotik beherakoa da. Iruñerrian, Elizondon, Altsasun lasaiago ibiltzen gara; behar bada hemen herri kirolak egotean jendea futbolera gutxiago joaten delako da.

ttipi-ttapa. *Eta diru aldetik zer moduz? Gastuak bakarrik dira ala soldata ere baduzu?*

M. Iturrarte. Egia esan, ez da asko irabazten, hirugarren dibisioan pixko bat gehixeago, baina orain gutxi;

ala ere bidaiak ordaintzeko adina bai.

ttipi-ttapa. *Eta etorkizunean honekin segitzeko asmorik baduzu?*

M. Iturrarte. Baliteke baietz, moral honekin mantentzen banaiz. Baina gora igotzeko suerte ona eta entxuferen bat ere beharrezkoak dira, eta despatxuetara bisitatxo batzuk egitea ere komeni da.

Testua: ELI eta IDOIA
Argazkiak: Antton ERKIZIA

Irurtzun, Ultzama eta Basaburua Baztan garaile Jolas Kiroletako herri kirol txapelketan

Lakuntzan burutu ziren finalak apirilaren 24ean

Joan den apirilaren 24ean arratsaldeko 5etatik aintzina burutu ziren Nafarroako Jolas Kiroletako finalak herri kiroletan, infantil eta kadete mailetan.

Lehenik infantil mailako proba konbinatua egin zen eta emozioz beteriko finala izan zen. Irurtzun, Sunbilla eta Arantza tartekatuz joan ziren lehen postuan, baina azkenean aipaturiko ordenean klasifikatu ziren. Kontutan hartu behar da Irurtzunek 3 dezima bertzerik ez zioela kendu.

Kadete mailako proba konbinatua burutu zen ondoren, eta hemen ere ez zen emoziorik falta izan, batez ere Basaburua Baztan eta Larraun arteko norgehiagokan. Azkenean, baztandarrak nagusitu ziren 3 segundutako abantailarekin.



Proba honen ondoren sokatirarako goma paratu zen. Ultzama infantiletan eta Basaburua Baztan kadete-

tan izan ziren txapeldunak, nahiko errex gainera.

Sari banaketan, Lakuntzako udala eta Sakanako

mankomunitateko kideekin batera Nafarroako Gobernuko ordezkariak ere izan ziren.

260 korrikalari Leitzako Crossean

260 korrikalaritik gora parte hartu zuten Aurrera elkarteak antolatutako Leitzako Crossaren XV. edizioan.

Senior mailan, Juan Mari Garin izan zen garaile gizonekoetan eta Iturrengo Maika Ariztegi emakumezkoetan. Lehen leitzarrak Angel Mindegia (21.) eta Juli Sagastibeltza (4.) izan ziren.

Laxoa denboraldia igandean hasi zen

Igande honetan hasi zen Baztan-Malerrekako XIV. laxoa denboraldia. Aurten goan, Arraioz, Donamaria, Elizondo, Irurita, Oitz eta Doneztebeko hiru taldek parte hartuko dute. Finalerdiak ekainaren 20 eta 27an jokatu dira eta finala uztailearen 4ean Doneztebeko plazan. Abuztuan kopa jokatu da eta gazte mailako txapelketa hasiko da.

Goizuetako I. Herri Olinpiada 15ean

Maiatzaren 15ean burutuko da Goizuetako I. Herri Olinpiada. Parte hartu nahi dutenek sei lagunetako taldeak osatu beharko dituzte, gutxienez taldekide bat emakumea izan behar duenari.

Erreleboak, karretilla, zaku laisterketa, koxkor apostua, trontza eta zaku apostua izanen dira «disziplina olinpikoak»

Sokatira txapelketak Sunbillan hasiko

Larunbat honetan arratsaldeko 7etan hasiko da Sunbillan sokatira denboraldia 680 kilo azpiko lehen kategoriako txapelketarekin. Hilaren 15ean, arratsaldeko 8etan, 640 kiloko gizonen eta 520ko emakumezkoen txapelketaren lehen kanporaleta burutuko da Elizondon. Bigarren mailakoak, hilaren 16an arituko dira Ziordian.


Mikel Saralegik errex altxatu zuen 320 kilotakoa

19 segundutan jaso zuen harria Tolosako zezen plazan

Mikel Saralegi, 25 urte-tako harrijasotzaile leitzar-
rak munduko errekor berri
bat ezarri zuen apirilaren
25ean Tolosako zezen pla-
zan 320 kilotako harrizarra
bi eskuz 19 segundotan biz-
karrean berdintzerakoan.

Telebistan ikusi ahal izan
genuenez altxaldi garbia
egin zuen Mikelek eta pla-
zan zegoen Iñaki Perurena-
ren zorionik beroenak jaso
zituen.

Eguraldiak -hotza eta
euria- ez zuen batera lagun-
du jendea plazara joan zedin
baina telebistaz ikusi zute-
nak aunitz izanen ziren.
Berotze lanetan, 200, 225
eta 280 kilotako harri "tti-
kiak" erabili zituen Sarale-
gik. Kontutan hartu behar
da, bere marka pertsonala
ere zortzi kilotan gainditu
zuela. Hemendik aintziner-
a ez du seguraski horrelako



Argazkiko harriak baino 70 kilo gehiago altxa zituen Saralegik

gauzarik eginen eta kiloak
banan bana altxatzen saia-
tuko da. Baina 25 urte ber-

tzerik ez duela kontutan
hartuz, zaila da bere muga
non dagoen jakitea.

Mikel Saralegi

Azkenean maixuari aurea hartu dio

Mikel Sarelegi 17 ur-
tetan hasi zen harri jaso-
tzen eta zortzi urtez lortu
du bere maixua izan den
Iñaki Perurenaren aintzi-
netik jartzea.

Halere, gauzak ez ditu
errex izan Mikelek, aste
bat lehenago Iñakik 318
kilotan utzia baitzuen
munduko errekorra.
Mikelek bapatean 312
kilotik 320 kilora pasatu
du salto batez eta ez du
hutsegín. Bere anai eta
laguntzailea den Nartxik
zioen bezala "harriari ki-
loren bat gehiago jarri-
gero ere Mikelek altxa-
tuko luke". Uda aintzine-
tik kilo batzu gehitzea
pentsatua du Mikelek.

BOTE - PRONTON

- Joxe Jabier **TABER-
NA** Lesakako pilotariak
profesionalerako sal-
toa eman du berriki
«Asegarce» enpresaren
eskutik.
- **GRAVN** txapelketan
ongi ari dira eskualde-
ko pilotariak jubetil
mailan. Logroñoan,
Apeztegia iturendarrak
banaka eta Olaizola
goizuetarrak errex ira-
bazi zuten.
- **IRURTZUN**go lau
t'erdiko txapelketan Ja-
vier Errandonea bera-
tarrak -laister profesio-
nalerako saltoa eman
dezake- irabazi zuen.
Sub -19 txapelketan
Castro lesakarrak ira-
bazi zion Otxandorena
bantzandarrari
- **EUGI** eta Belokiren
arteko partidua ederra
izan zen. Lastima zola
hain irristalaria egotea.

Hamabostaldiko jokaldiak



Umore Ona Goizuetako
elkartea.

Lehen aldiz antolatu dute
aurtengoan «Herri Olin-
piada» Goizuetan, ahalik
eta jende gehienak parte
hartzeko asmoarekin. Ki-
rola guztiei zabaltzea eki-
men txalogarria da.



Jende gutti Saralegiren
errekor berria ikusten.

Ez zen Tolosako zezen
plaza inondik inora bete.
Egia da eguraldia penaga-
rria zegoela baina maila
horretako marka batek
merezi zuen jendearen be-
rotasun haundiagoa.

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Beran** pisua salgai, kalefakzio eta sukalde ekipatuarekin. ☎ 630566 (arratseko 8etatik aurrera).

• **Malerreka-Baztan** inguruan erosteko edo denbora luzez alokatzeko base-ri bat behar dugu, bertan bizitzeko. ☎ 450325 asteazkenak ezik. Ines eta Iñaki (Zubieta)

Lana

• **Enpresarialeseko** ikaslea naiz eta EGB-OHOk haurrei klase partikularrak emanen nizkieke. ☎ 453312.

• **Lan** eginen nuke ordu kontuan, edozein lan, aste-buruetan baita. Esperientziaduna. ☎ 451521 (Javier 7etatik aurrera).

• **Baztanen** lan eginen nuke udan, etxeren bat garbitzenedo haurrak zaintzen. ☎ 453213 (Ainhoa).

• **Administraria**, esperientziaduna eskeintzen da. Informatika. ☎ 510012.

• **Bortzirietan** etxeko lanak edo haurrak zaintzen lan eginen nuke. ☎ 510012.

• **Neska euskaldunak** udako hilabetetan lan eginen luke etxeko lanetan edo haurrak zaintzen. ☎ 450670 (5etatik aintzinerara).

Salerosketak

• **2.000** teila berri salgai, prezio interesgarrian. ☎ 610654.

• **Jardinerako** forjazko 6 aulki salgai. ☎ 637129.

• **Asto** bat eta astakume ar bat salgai. ☎ 510524.

• **Idazmakina** bat (Olivetti-Lettera 10) salgai, 3 urtetakoa. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Mastin** txakurkumeak salgai Portula etxean. Bera.

• **Sukalde** kalefaktora ia berria salgai. Hergom markakoa eta 6 radiadore jartzeko modukoa. Erdi prezioan. ☎ 637129.

• **Komuniorako** mutil jantzi osoa salgai. Modu oso onean. ☎ 504492.

• **Zur** zaharrak, harri tallatu zaharrak, lurreko harri laukituak erosi nahi nituzke. Deitu jatorduetan ☎ 59542123 (Sara).

• **150 belar-fardo** salgai. ☎ 615124.

• **Peugeot 205** xuria, M-

GN, 48.000 km. salgai 350.000 pztatan. ☎ 630568.

• **Renault 6** NA-Igoera onean salgai 90.000 pezeta-tan. ☎ 630568.

• Edarientzako **kamara** motorra berriarekin eta **esne tankea** salgai. ☎ 630844 (arratseko 8etatik 10etara).

• **Ordenagailua** PC1512 kolorezko monitorea, impresora eta programekin salgai. 49.000 pezeta. ☎ 580532 (9,30-1 eta 3,30-7,30).

• **Negutegi** estruktura prezio onean salgai, Ulma markakoa, kanpainatan bakarrik erabilia. ☎ 637229 (3etatik 10etara).

• **Montesa 310** motoa salgai. Urte terdikoa egoera onean. 295.000 pezetatan. ☎ 450450 (Patxi, gauez).

• **Artzain** zakurkumeak salgai. ☎ 504498.

Denetarik

• **Land Rover** bat daukagu eta traktore txiki batengatik aldatzea gustatuko litzaiguke. Xorroxin irratarra deitu. ☎ 581226.

• **Irakasle** tituluduna Beran, EGBko klase partikularrak emateko prest egonen litzateke. ☎ 630182.

Harremanak

• **Goizuetako** 8. mai-lakoei zorionak. Oso ongi egiten duzue antzerkia. Ea txapelketa irabazten duzuen. Ongi igaro Benidorren.

• **Berako** Arantxa Burgeteri zorionak 17. urtebetetzean (maiatzak 4). Zure klaseko lagunak..

• **Leitzako** Yolandari: 'Litamin'arekin kontuz, bitamina gehiegi ere ez da oso ona. Eskuminak. Laister arte. 'Multiusos'.

• **Aresoko** Garbiñe eta J. Jokineri urtebetetze egunean (maiatzak 9 eta 11). Zorionak eta muxuak. Juana M^a, Uxue eta Zuriñe.

• **Leitzako** Karmelerentzat: zutaz ahazten ez diren 3 lagunak. Irlandatik berrakada bero bat.

• **Erratzuko** Ana, Marcos, Roman, Javi, Gurutze eta Ramonentzat. Zorionak. Ea noiz ospatzen dugun behar den bezala! (Zuen kontura noski). 'Las de verde'.

• **Leitzako** golfa taldeari: juergak alde batera utziz, boliluma eta papera hartuz, hasi zuen istorioak kontatzen. Txaloen taldekoak.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa



Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



Horiek, agian, ez
dute Euskal
Hiztegi
Entziklopedikoaren
beharrik,

eta zuk?

- Lehenengo Euskal Hiztegi Entziklopedikoa.
- 9.000 euskaldun hitzarturik obra honetan harpidetzaren bitartez.



Obra honi buruz **informazio gehiago** jaso nahi nuke, bestelako konpromezurik gabe.

Izen abizenak

.....

Helbidea

Herria/Localidad P.K.

Lanbidea

Tel.

Moztu eta beheko helbidera bidal ezazu.

LUR argitaletxea • Usandizaga kalea, 17 • 20.001 - DONOSTIA